

# USABAL KIROLDEGIKO BARNE- ARAUDIA

## Helburua

### 1. artikulua

Araudiaren helburua Usabal Kiroldetiko erabilera eta funtzionamendua arautzea da, baita erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta ardurak ere.

## I. TITULUA

### Xedapen orokorrak

### 2. artikulua

Usabal Kiroldetia interes orokorreko zerbitzu publikoa eskaintzen du. Horregatik, beraz erabiltzeko arau batzuk jarraitu behar dira. Beraz, bertako erabiltzaileak pertsona fisikoak edota juridikoak izan daitezke, araudi honek diotenari lotuta.

Hala ere, bere erabilera honako alderdi hauek baldintzatuko dute: kirol-gune bakoitzaren edukierak, unean-unean erabakitzen den edukierak, tarifa ordainketak (beharrezkoa denean) eta ikusleak joan daitezkeen jardueretarako araudi bereziak.

### 3. artikulua

1. - Usabal Kiroldetia jarduera fisikoak eta mota zein aukera guztietako kirolak egiteko lekua da
2. - Kirol erabilerez gain, kirolarekin zerikusirik ez duten jarduerak egiteko erabili ahal izango da kiroldegia, betiere, jarduera horiek bertan dauden azpiegiturekin bat baldin badatoz eta ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

### 4. artikulua

Usabal Kiroldetia Kirolder SLk administratzen eta kudeatzen du, instalazio horien kudeaketa esleitzeko lehiaketa publikoan erabaki bezala. Hala ere, Tolosa Lantzen SAK emango du irizpena, eta, beti, bere ardurak izango da kudeaketaren kontrola eta zerbitzua behar bezala ematea zaintzea.

## II. TITULUA

### Araubide orokorra

#### 5. artikulua

Usabal Kiroldegia irekitzea eta bere funtzionamendua Tolosa Lantzen SAK urtero ezarriko dituen egutegi, ordutegi eta erabilerek gidatuko dute.

Egutegiak Usabal Kiroldegia kirol zerbitzutik kanpo noiz egongo den zehaztuko du, baita lan-egutegiaren arabera jaiegunak zeintzuk izango diren ere.

#### 6. artikulua

Tolosa Lantzen SAK zorren bat duten pertsona fisikoei edota juridikoei debekatu ahal izango die Usabal Kiroldegia erabiltzea, edota kirol nahiz kirol arlotik kanpoko jardueren antolaketa edo sustapena gauzatzea bertan. Beraz, kiroldegia erabili nahi dutenek Udalarekin dituzten betebeharrak fiskal guztiak beteta eduki beharko dituzte.

Tolosako Udalak betebeharrak betetzen diren egiaztatze eskubidea izango du. Hortaz, eskaera ezeztatze, ukatzeko edota emandako baimena ezeztatze eskubidea izango du, erabiltzaileak zorrak dituela frogatzen baldin bada.

#### 7. artikulua

Erabiltzailea Usabal Kiroldegian darabilenean, eguneko sarrerako txartela edota abonua eskura eduki behar ditu.

Erabiltzailea eguneko sarrera erosita sartzen bada Usabal Kiroldegira, instalaziotik ateratzeko eta ordaindu gabe berriro sartzeko aukera izango du. Hau da, sarrera txartelak egun osorako balio du.

#### 8. artikulua

Eguneko sarreraren zenbatekoa eta abonatu kuota ez dira itzuliko behin ordaindu eta gero, ezarrita dauden tarifaren arabera eta araudi honek xedatzen duenari jarraituz.

## 9. artikulua

1. - Harpidedun txartela pertsonala eta besterenezina da. Horregatik, behar den bezala erabiltzen ez bada, erabiltzaileari txartela kendu eta isuna ezarriko zaio.
2. Nortasun agiri horrek eskubide jakin batzuk ematen dituenez, edozer manipulazio egiten bazaio, araudian aurreikusitako isunak ezarriko dira, sor daitezkeen erantzukizun penalen kalterik gabe.
3. Tolosa Lantzen S.A.k, egoki baderitzo, zirkulazioan dauden abonatu txartel guztiak baliogabetzeko eskuduntza du, ezartzen den epean berriak hartzeko haien trukean.

## 10. artikulua

1. - Instalazioak duen edukierara iritsiz gero, ez da utziko inor gehiago sartzen instalazioan.
2. - Egoerak hala eskatzen duelako instalazioetara sartzeko aukera mugatzen bada, abonatuak izango dute kiroldegira sartzeko lehentasuna.

Gomendatutako edukierak:

Kanpoko igerilekuak	Haurren igerilekua: 70 lagun
	Helduen igerilekua 180 lagun
	Solariuma 500-800 lagun
Barneko igerilekuak	Haurren igerilekua: 38 lagun
	Helduen igerilekua 170 lagun
	Hidromasajea 70 lagun
	Harmaila 250 lagun
Kantxa nagusia	800-1200 lagun
Entrenamenduetako kantxa	180-200 lagun
Fitness-a	80-100 lagun

## 11. artikulua

Usabal Kiroldegia erabiltzeko baimena besterenezina da. Horregatik, titularrek ezingo dituzte onartutako erabilerak beste bati utzi edota trukatu, baldin eta ez bada Tolosa Lantzen S.A.ren adostasunarekin.

## 12. artikulua

Usabal Kiroldegia erabiltzeko baimena, kasu guztietan, Tolosa Lantzen SAren beharren mende dago eta, hura ezean, Tolosako Udalaren mende.

## 13. artikulua

1. - Tolosa Lantzen S.A.k erabilerak aldatzeko edota baliogabetzeko, eta udal intereseko arrazoiengatik zerbitzua denboraldi baterako eteteko ahalmena du.

Horrelako erabaki baten ondorioz erabiltzaileei egin dakizkikeen kalteei erantzun beharrik ez die izango, tarifei edo abonaturako bermeei dagozkienak izan ezik.

2. - Onartutako erabilerei uko egiteak Udal Erregistro Orokorrean eskaera egin eta bost egunetara izango ditu eraginak. Baimendutako erabilerei partzialki uko egiteko aukera bakarrak honakoak dira: jarduera uztea edota erabilera eskatu duen erabiltzailearen kirol denboraldia bukatzea.

#### 14. artikulua

Usabal Kiroldegia ohiko ordutegitik edota egutegitik kanpo erabiltzeko baimena eman ahal izango da salbuespenezko kasuetan.

#### 15. artikulua

Usabal Kiroldegian jarduerak egiteko ekipamendua muntatu edota desmuntatu behar baldin bada eta horrek kirol jardueren ohiko garapena oztopatzen badu, denbora hori ere zenbatu egingo da.

Muntaketa eta desmuntatze lanak instalazioa erabiltzen ari den erabiltzaileak egingo ditu eta bertako pertsonal arduradunak ikuskatuko ditu. Era berean, erabiltzaileak honako gastuak ordaindu beharko ditu: zainketak, garbiketak, energia elektrikoko kontsumoak, ekipamenduen muntaketak zein desmuntatzeak edota bestelako egoeretatik eratorritakoak.

#### 16. artikulua

Usabal Kiroldegia ordaindu gabe erabili ahal izango da, salbuespen gisa, Tolosarako interesgarriak diren kirol-jarduera jakinetarako edota kirol arlokoak ez diren jardueretarako.

#### 17. artikulua

Salbuespenak salbuespen, kirol-materialez hornitzea eta hura erabiltzea ez dira sartzen Usabal Kiroldegia erabiltzeko baimenaren barruan. Horregatik, erabiltzaileek eraman beharko dute materiala eta kirol-modalitatearen araberrako arauetara egokitu beharko dute.

#### 18. artikulua

Eskeak hala gomendatzen duenean, Usabal Kiroldegia erabiltzeko lehentasun irizpideei jarraituko zaie; hau da, ordenari segituko zaio, eskaeren helburuaren eta udal beharren arabera.

## 19. artikulua

Tolosa Lantzen SAK ez du bere gain hartuko Usabal Kiroldegian galtzen edota hondatzen diren objektu pertsonalen gaineko erantzukizunik, baldin eta ez badira segurtasun kutxetan edota kiroldegiko langileek zuzenean zaindutako lekuren batean gordetakoak.

1. Usabal Kiroldegian bildutako objektuak bertako bulegoetan geratuko dira hamabost egunez. Gero, galdutako objektuen udal-bulegora eramango dira.

## 20. artikulua

1. - Erabilera mugak eta debekuak
  - a) Zurezko edota material sintetikoko zoruak dituzten kirol-guneetara kirol arropa eta oinetakoekin sartu behar da. Kaleko arropekin eta oinetakoekin pasabideetan eta ikusleentzako guneetan bakarrik egon ahal izango da.
  - b) Debekatuta dago Usabal Kiroldegira bizikletekin, patinekin, monopatinekin eta antzekoekin sartzea, baldin eta ez bada programatutako jarduerak egiteko berariazko baimena duten kirol-guneetara.
  - c) Erretzea debekatuta dago Usabal Kiroldegi osoan. Aplikatzen den araua abenduaren 26ko 28/2005 Legea da.
  - d) Edari alkoholduak Usabal Kiroldegi osoan kontsumitzea debekatuta dago, baldin eta ez bada espresuki baimendutako lekuetan.
  - e) Erabiltzailearen osasunaren, erosotasunaren eta gozamenaren alde, eta aisialdirako kirol erabilera eta kirol-guneak mantentzea errazteko, honako arauak bete behar dira:

Kanpoko igerilekuak:

- Debekatuta dago zortzi urte baino gutxiagoko haurrak igerilekuan sartzea, baldin eta ez badoaz haien gaineko arduraren bere gain hartuko duen adin nagusiko batekin
- Garbitasun neurri gisa, gaixotasun kutsagarriak dituztenek ezingo dute igerilekuan sartu, ez badute bestelakoa adierazten duen osasun-txostena erakusten, behintzat. 32/2003 Dekretua.
- Igerilekuko pertsonalaren eta sorosleen aginduak jarraitu behar dira beti.
- Debekatuta dago igerilekuaren gunera kaleko arroparekin sartzea. Nahitaezkoa da bainujantzia erabiltzea. Kaleko arropa gisa erabilitako bainujantziak eta oinetakoak ez dira onartuko.
- Beharrezkoa da dutxatzea uretara sartu baino lehen.
- Debekatuta dago uretara arropa edota igeriketaren alorreko kirol arlokoak ez diren objektuak botatzea edota sartzea.
- Picnic-erako prestatutako eta berariaz seinaleztatutako guneetan izan ezik, debekatuta dago igerilekuko gunean (inguruan eta uretan) jatea, erretzea eta isur daitezkeen edariak sartzea.

- Debehatuta dago eguzkitakoak, mahaiak, aulkiak eta bestelako elementuak sartzea.
- Berariaz debehatuta dago aldageletan, komunetan, igerilekuko inguruetan, eta abarretan kristalezko elementuak edota hautsiz gero, erabiltzaileei lesioak eragin diezazkieketen elementuak sartzea, adibidez: botilak, poteak, ispiluak, edalontziak, etab.
- Debehatuta dago urpean igeri egiteko betaurrekoak, hegatsak, koltxoneta pneumatikoak, eta abar erabiltzea, antolatutako jardueretan izan ezik.
- Bizikidetasuna eta segurtasuna dela-eta, igerilekuko inguruetan lasterketak, enbarazu egiten duten jolasak, eta, batez ere, arriskutsuak direnak egitea debehatuta dago.
- Debehatuta dago igerilekuan uretara sartzeko jauzi bortitzak egitea, arriskutsua bada urpean dauden bainularientzat.
- Musika gailuak eramaten badira, beste erabiltzaileak gogaitu gabe erabili beharko dira.

#### Igerileku estalia eta hidromasajerako igerilekua:

- Garbitasun neurri gisa, gaixotasun kutsagarriak dituztenek ezingo dute igerilekuan sartu.
- Zuhurtasun neurri bezala, debehatuta dago sei urte baino gutxiagoko haurrak sartzea, baldin eta ez badoaz haien gaineko ardura bere gain hartuko duen adin nagusiko batekin
- Igerilekuko pertsonalaren eta sorosleen aginduak jarraitu behar dira beti.
- Debehatuta dago igerilekuko gunean igeriketakoak ez diren objektuak sartzea.
- Uretan sartzeko, beharrezkoa da honako ekipamendua erabiltzea:
  - a. Bainujantzia
  - b. Bainu-txanoa
- Beharrezkoa da dutxatzea uretara lehenbiziko aldiz sartu baino lehen.
- Debehatuta dago uretara arropa edota igeriketaren alorreko kirol arlokoak ez diren objektuak botatzea edota sartzea.
- Berariaz debehatuta dago aldageletan, komunetan, igerilekuko inguruetan, eta abarretan kristalezko elementuak edota hautsiz gero, erabiltzaileei lesioak eragin diezazkieketen elementuak sartzea, adibidez: botilak, poteak, ispiluak, edalontziak, etab.
- Debehatuta dago urpean igeri egiteko betaurrekoak, hegatsak, pneumatikoak, eta abar erabiltzea, antolatutako jardueretan izan ezik.
- Bizikidetasuna eta segurtasuna dela-eta, igerilekuko inguruetan lasterketak, enbarazu egiten duten jolasak, eta, batez ere, arriskutsuak direnak egitea debehatuta dago.

- Debehatuta dago igerilekuan uretara sartzeko jauzi bortitzak egitea, arriskutsua izan daitekeelako urpean dauden bainularientzat.
- Debehatuta dago 16 urte baino gutxiagokoak hidromasajeetan sartzea.
- Egoerak bestelakorik agintzen ez badu behintzat, estalitako igerilekuaren erabilera kaleka antolatuko da, irizpide nagusi gisa, eta ordutegi programarekin. Igerilekuan bertan egongo da ipinita ordutegia. Hala, ikastaroetarako, kirol entrenamenduetarako eta erabiltzaileek igeri egiteko eta bainu libreko kaleak ordutegiaren bidez antolatuko dira, igerilekua ahalik eta ongien aprobetxatzeko.

#### Kirol pistak:

- Bizikidetasun arrazoiengatik, debehatuta daude enbarazu egiten duten edota arriskutsuak diren jolasak.
- Debehatuta dago 6 urte baino gutxiagoko haurrak igerilekuan sartzea, baldin eta ez badoaz haien gaineko ardua bere gain hartuko duen adin nagusiko batekin
- Erabiltzaileek kirol-oinetako eta kirol-jantzi egokiak erabili behar dituzte.
- Lehiaketa orduetan eta egunetan, adierazitako ordutegian, pistak itxita egongo dira horietan parte hartuko ez duten erabiltzaileentzat.
- Horietan ezingo da beste kirolik egin, instalazioko arduradunek berariaz baimentzen ez badute.
- Kirol-zoladurari kalte egiten dioten kirol-elementuak ezingo dira erabili.
- Kirolarien laguntzaileek ez dute kirol-arropa derrigorrez erabili beharko, baina ezingo dute kaleko oinetakorik erabili.

#### Futbol zelaiak:

- Debehatuta dago 6 urte baino gutxiagoko haurrak igerilekuan sartzea, baldin eta ez badoaz haien gaineko ardua bere gain hartuko duen adin nagusiko batekin
- Bizikidetasun arrazoiengatik, debehatuta daude enbarazu egiten duten edota arriskutsuak diren jolasak.
- Jokalekua mantentzeko arau espezifikokoak errespetatu egin behar dira.
- Belar sintetikoan, futboleko jokatzeko, hartarako oinetako egokiak erabili behar dira.

#### Muskulazio aretoa:

- Debebatuta dago 16 urte baino gutxiagoko pertsonak igerilekuan sartzea, baldin eta ez badoaz haien gaineko ardura bere gain hartuko duen adin nagusiko batekin.
- Ezingo dira sartu jarduera egiteko beharrezkoak ez diren edota beste erabiltzaileei traba egiten dieten elementuak.
- Segurtasunagatik eta garbitasunagatik, erabiltzaileei eskularruak eta eskuoihalak erabiltzea gomendatzen zaie.

#### Saunak, lurrin bainua eta terma:

- 16 urte baino gutxiago dutenek sarrera debebatuta dute.
- Beharrezkoa da dutzatzea bertan sartu baino lehen.
- Beharrezkoa da eskuoihala erabiltzea saunan esertzeko edota etzateko.
- Honako gaixotasunak dituzten pertsonen instalazio hauek ez erabiltzea gomendatzen zaie: hipotentsio arteriala, bihotz-hodietako gaixotasunak eta barizeak dituztenei, eta, era berean, alkoholduen edariak edan dituztenei eta halakoen erabilera debebatuta duten guztiei.

#### Aldagelak:

- Erabat debebatuta dago aldageletan, komunetan, igerilekuko inguruetan, eta abarretan kristalezko elementuak edota hautsiz gero, erabiltzaileei lesioak eragin diezazkieketen elementuak sartzea, adibidez: botilak, poteak, ispiluak, edalontziak, etab.
- Gomendagarria da norberak bere txankletak eta garbiketarako elementuak erabiltzea.
- Bizikidetasun arrazoiengatik, debebatuta daude enbarazu egiten duten edota arriskutsuak diren jolasak.
- Debebatuta dago armairuetan gordetzea honda daitezkeen elementuak.
- Joaterakoan, erabiltzaileak armairua hutsik utzi beharko du, hau da, objektu pertsonal guztiak atera beharko ditu.
- Aldagela espezifikorik ez badago, sei urte baino gutxiagokoek, beste sexuko aldageletara joateko aukera izango dute, betiere, guraso-agintea, tutoretza edo ardura duen adin nagusiko baten laguntzarekin, umea garbitu eta jantzi ahal izateko, honetarako ezarritako arau espezifikoaren arabera.



### III. TITULUA

#### Publizitate ustiapena

##### 21. artikulua

1. Usabal Kiroldegiak publizitate ustiapenerako guneak izango ditu. Horiek Tolosa Lantzen SAK erabaki eta esleituko ditu.
2. - Udalerriko kirol-instalazioak erabiltzeko baimenak ez du barne hartzen horiek publizitatea egiteko erabiltzea.
3. - Usabal Kiroldegiko guneetan agertzen den publizitateak bat etorri beharko du arlo horri buruz indarrean dauden xedapenekin, eta aurretik Udalaren onarpena beharko du, nahitaez.

##### 22. artikulua

1. - Usabal Kiroldegia erabiltzeko lagapena duten titularrek, kirol-ekitaldiak eta kirolezkoak ez diren bestelako ekitaldiak egiteko, horretarako prestatutako guneetan publizitatea egiteko Tolosa Lantzen SAREN baimena edo emakida jasotzeko aukera izango dute.
2. - Hala ere, ekitaldi publikoek irauten duten denborarako bakarrik negoziatu ahal izango dute publizitatea, eta horretarako aukeratutako lekuetarako soilik. Lagapena duten titularrek hartuko dituzte beren gain publizitatea egiteko gastuak.

##### 23. artikulua

1. - Usabal Kiroldegian, irizpide nagusi gisa, erabiltzaileek kudeatutako publizitatea, gehienbat, pistako zoruan agertuko da, jokatzeko gunetik kanpo, bai horizontalki bai bertikalki edo euskarri bertikal mugikorretan, eta, betiere, Tolosa Lantzen SAK erabakitako ezaugarri materialekin.
2. - Pistetako joko-gunean ez da publizitaterik onartuko, Tolosako Udalak sustatzen duena salbu. Noizean behin, erabiltzaileen klubetako ligek onartzen dituztenak onetsiko dira.
3. - Udalaren kirol-instalazioetako erabiltzaileek ezingo dute instalazioen barruko aldean publizitaterik jarri (aldageletan, korridoreetan, etab.), baldin eta horretarako baimenik ez badute.

## IV. TITULUA

### Kontsumigarrien ustiapena

#### 24. artikulua

Udalaren kirol-instalazioetan kontsumigarriak diren gaiak ustiatzeko eskubidea Tolosa Lantzen SAK bakarrik dauka.

#### 25. artikulua

1. - Tolosa Lantzen SAK ikuskatu eta ustiapenaren esleipendunak begiratuko du dagokion araudia betetzen den, eta, bereziki, kirol-instalazioen barruan edari alkoholdunak eta tabakoa zerbitzatu eta kontsumitzekoarena.
2. - Debekatuta dago instalazioetara kristalezko edo arriskutsutzat jotzen den beste edozein materialez egindako ontziak eramatea eta erabiltzea.

## V. TITULUA

### Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak

#### I. KAPITULUA

##### Eskubideak

#### 26. artikulua

1. - Erabiltzaile guztiek Usabal Kiroldegia erabiltzeko eta gozatzeko eskubide berdinak dituzte. Honakoak dira:
  - a. Egutegiaren, ordutegiaren eta gainerako erabilera baldintzen arabera erabiltzea.
  - b. Tolosako Udalari zerbitzuaren funtzionamenduei buruzko eskaerak, iradokizunak edota kexak adieraztea.
  - c. Udalari araudiak agintzen duena betetzeko exijitzea.
  - d. Diziplina-espedienteen deskarguak eta udal erabakien aurkako errekurtsuak denboran eta forman aurkeztea.

#### 27. artikulua

Usabal Kiroldegia erabiltzen dutenek, edozein unetan, bertako langileei edota arduradunei identifikatzeko eskatzeko eskubidea izango dute, erreklamazioak egin ahal izateko.

#### II. KAPITULUA

##### Betebeharrak

#### 28. artikulua

Usabal Kiroldegia erabiltzeko interesa duten guztiek prezio publikoa ordaindu behar dute, erabakita dagoen moduan.

#### 29. artikulua

Usabal Kiroldegiko erabiltzaileek Tolosako Udalarekin dituzten obligazio fiskalak egunean izan beharko dituzte.

### 30. artikulua

Erabiltzaile guztiek arauak zorrotz betetzera behartuta daude. Instalazioetako arduradunek exijituko dute arauak betetzea, indarrean dauden xedapenak betetzeko eta betearazteko ardura baitute.

### 31. artikulua

Usabal Kiroldegiko erabiltzaileek beste erabiltzaileak eta instalazioetako arduradunak errespetatu egin behar dituzte. Erabiltzaileek instalazioetako arduradunak agindutakoa egin beharko dute. Arduradunek instalazioek nola funtzionatzen duten azalduko diete eta materialen berri eman.

## III. KAPITULUA

### Erabiltzaileen erantzukizunak

### 32. artikulua

1. - Erabiltzaileek instalazioak egoera onean utzi beharko dituzte, hurrengoek erabili ahal izateko. Beste alde batetik, beren gain hartuko dituzte beren jarduera baimenduaren ondorioz instalazioetan zein inguruetan sortzen dituzten kalteak, lokaleko edo eraikineko gainerako guneetan sortzen dituztenak, edota pertsona fisikoei eragindakoak.
2. - Baimenaren titularrak izango du erabileraren erantzukizuna, baldin eta ez badu frogatzen inoren ordezkaria dela. Kasu horretan, ordezkatzeko duen subjektuarena izango da erantzukizuna.

### 33. artikulua

Adin txikikoen segurtasuna gurasoen edo haiekin batera doazen adin nagusikoen erantzukizuna da. Haiek izango dira erantzuleak, era berean, adin txikikoek udal kiroldegiko instalazioetako arauak urratuz gero.

### 34. artikulua

Usabal kiroldegiko erabiltzaileak (pertsonek edota erakundeak) instalazioei edo hirugarrenei eragindako kalteen erantzule izango dira, gaizki jokatu dutela edo gaizki erabili dutela frogatuz gero.

### 35. artikulua

Erabiltzaileek instalazioak modu desegokian edo zuhurtziaz gabe erabiltzen badute eta istripurik izaten badute, Tolosa Lantzen SAK ez du erantzukizuna bere gain hartuko.

## IV. KAPITULUA

### Zigor araudia

### 36. artikulua

1. - Erregelamendu honetako arauak haustea faltatzat joko da. Tolosa Lantzen SAri bakarrik egokituko zaio akats horren larritasun maila neurtzea eta, diziplina-espeditente bat irekita, dagokion isuna jartzea.
2. - Hala ere, instalazioez arduratzen diren langileek arauak hausten dituzten erabiltzaileak ohartarazteko ahalmena dute. Erabiltzaileek jaramonik egiten ez badiete, arduradunek haiek botatzeko edo abonatu txartela kentzeko ahalmena izango dute.
3. - Abonatu txartela kenduz gero, instalazioaz arduratzen diren langileek berehala jakinarazi beharko diote Tolosa Lantzen SAri, instalazioetan sartzeko eskubidea bertan behera zergatik utzi den azaltzeko edo argitzeko.

### 37. artikulua

Hutsegiteak honako isunekin zigortuko dira:

- a. Hutsegite arina: Ohartarazpena.
- b. Hutsegite larria: Erabiltzailearen edota abonatuaren eskubideak denboraldi baterako kentzea.
- c. Oso hutsegite larria: Erabiltzailearen edota abonatuaren eskubideak behin betiko kentzea.

Hutsegite horiek egoera larrigarrien, aringarrien edota salbuesleen arabera izango dira.

### 38. artikulua

Erabiltzaileei, arauak hautsiz gero, isuna jarri ahalko zaie. Gainera, sortutako kaltea konpondu beharko dute, eta hutsegitearen aurrean erantzun beharko dute.

### 39. artikulua

1. - Tolosa Lantzen SAK ireki eta erabakiko du Usabal Kiroldegiko araudia haustearen ondoriozko espedientea. Espediente hori ofizioz edo alde baten ekimenez abiatuko da, eta helburua gertaerak definitzea, erantzukizunak argitzea eta dagokion isunak ezartzea izango da.
2. - Aurre neurri bezala instalazioetatik kanporatu duten erabiltzaileari edo txartela kendu zaion abonatuari, behin-behineko zigorra kendu ez badiote egoki diren arrazoiengatik, ezingo ditu instalazioak erabili diziplina-espedientea erabaki arte.

### 40. artikulua

Espedientea irekitakoan, inplikatuari entzungo zaio, deskargu-plegua egin dezan zortzi eguneko epean. Plegua erantzun edo erantzuteko epea igarotakoan, instruktoreak erabaki proposamena egingo du, eta interesdunei jakinaraziko die, zortzi eguneko epean beren burua defendatzeko egokitzat jotzen duten alegazioa egin dezaten. Epe hori amaitzean, espedientea ireki zuen organoari bidaliko zaizkio erabaki proposamena eta ekintza guztiak.

### 41. artikulua

Hartzen den erabakiaren aurka administrazioarekiko helegitea jar daiteke, jurisdikzio horretako organo eskudunaren aurrean. Hala badagokio, aurretik, legedia nagusian ezarritako administrazioarekiko auzi-helegitea berraztertze errekurtsua egingo da.

### 42. artikulua

Diziplina erregimenari ezarri beharreko arautegia otsailaren 20ko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 02/1998 Legeko IX. tituluari, Zigortzeko ahalmenari buruzkoari, jarraiki arautuko da.

## V. KAPITULUA

### Usabal Kiroldegia ezohiko jarduerak egiteko erabilera baldintzak

#### 43. artikulua

Kirolzerrek eta Tolosako Udalak idatziz jaso beharko dute instalazioak erabiltzeko baimen eskaera, 15 egun lehenago, gutxienez.

#### 44. artikulua

Eskatzaileak, ondoren, instalazioetako kudeatzaileekin bilera egin beharko du, jardueraren aurretik, bitartean eta amaieran ezarri beharreko lan plana erabakitzeko.

#### 45. artikulua

Usabal Kiroldegiak instalazioko giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak eskatzailearen esku jarriko ditu; gainerako beharrei dagokienez, eskatzailearen kontura izango dira.

#### 46. artikulua

Eskatzaileak ordaindu beharko ditu instalazioa ohiko ordutegitik kanpo erabilitako ordu guztiak eta jarduerak sortutako ezohiko gastu guztiak.

#### 47. artikulua

Eskatzaileak, jarduera egin aurretik, Usabal Kiroldegia kudeatzen duen enpresari 5.000 €ko bermea eman beharko dio. Bermea jarduera amaitzean itzuliko zaio, instalazioa egoki utzi duela ikusi ondoren.

#### 48. artikulua

Eskaera egiten duenak aste bat lehenago ardura zibileko aseguru-poliza aurkeztu beharko du, sor daitezkeen kalteei aurre egiteko nahikoa estaldurarekin.

